

Hitza

Esanahia

<b>adeitasun</b>	kortesia, jendetasuna
<b>adore eman</b>	animoa eman
<b>ahitu</b>	nekatu, indar gabe geratu
<b>aitortza</b>	aitorpena
<b>akabuko</b>	azken-azkena
<b>akordura etorri</b>	gogoratu, burura etorri
<b>aldiri</b>	eskualdea, hiriburu ondoa
<b>amaraun</b>	armiarma-sarea, korapiloa
<b>amarruz</b>	maltzurkeriaz, engainuz
<b>anabasa</b>	nahaspila, nahastea
<b>anbibalentzia</b>	sentimendu kontrajarria + –
<b>anda</b>	ohatila, esku-ohea
<b>antzu</b>	balio gabea, hutsala
<b>arakatu</b>	miatu, ikertu
<b>arbola biluzi</b>	hosto gabea
<b>arestian</b>	lehentxeago, duela gutxi
<b>argigarri</b>	argitzailea, esplikatzailea
<b>arrakalatu</b>	pitzatu, zartatu
<b>arrandia</b>	handikeriazkoa, harrokeria
<b>artatu</b>	zaindu, atenditu
<b>artega</b>	urduri, larrituta
<b>artez begiratu</b>	aurpegi-aurpegira, zuzen-zuzen
<b>astakeria</b>	bortizkeria
<b>astrapala</b>	zalaparta, zaratotsa
<b>atoan</b>	berehalaxe, arin batean

Hitza	Esanahia
<b>atril</b>	orriak kokatzeko tresnatxoa
<b>auzipetu</b>	epaitu, auzitara eraman
<b>azpil</b>	erretilua, bandeja
<b>badaezpadako</b>	kontuz ibiltzekoa
<b>baoaren handia</b>	zein irekidura zabala
<b>baranda</b>	babes xafla / eskudela
<b>bart</b>	aurreko gaua ( <i>anoche</i> )
<b>basaki</b>	zakarki, indarka
<b>begitandu</b>	iruditu
<b>behaxulo</b>	ikusteko zulo txoa
<b>bekain</b>	bepurua ( <i>ceja</i> )
<b>belu</b>	berandu, atzerapenez
<b>berba</b>	hitza, elea
<b>berbarako</b>	kasurako, adibidez
<b>berbaro</b>	hitz-hotsa
<b>berrogeitaka</b>	berrogei eta gehiago
<b>bertatik bertara</b>	berehala, hurbil-hurbil
<b>betazal</b>	begiak estaltzen dituen azala
<b>betazpiko</b>	begipea, begien azpialdea
<b>bezero</b>	eroslea, klientea
<b>beztitu</b>	hornitu, osatu
<b>biak ala biak</b>	biak ere ( <i>ambos</i> )
<b>bidezidor</b>	bidexka, irtenbidea
<b>bidezidor</b>	bidexka, lasterbidea
<b>bidezko</b>	egin beharrekoa, legitimoa

Hitza	Esanahia
<b>biharamun</b>	hurrengo eguna
<b>bits</b>	aparra, haguna
<b>bortxa</b>	bortizkeria, biolentzia
<b>desio</b>	irritsa, sexu grina
<b>difamatu</b>	iraindu
<b>dikotomia</b>	zatiketa
<b>dikotomia</b>	kontzeptu osagarriak
<b>dirdai</b>	distiratsua
<b>doi-doi</b>	nekez, ozta-ozta
<b>dorpe</b>	trauskila, baldarra
<b>durundi</b>	hots ozena, oihartzuna
<b>ebatzi</b>	erabakitakoa
<b>egiten duzuna</b>	berdin du zer egiten duzun
<b>egoeraren gordina</b>	zein egoera latza
<b>eguen</b>	osteguna (bizk.)
<b>ei</b>	omen
<b>eklektiko</b>	estilo desberdinak dituen
<b>enparauak</b>	gainerakoak, besteak
<b>epaia</b>	sententzia
<b>ergelkeria</b>	lelokeria, papaukeria
<b>ernegatu</b>	gogaitu, nazkatu
<b>erpuru</b>	atzamar edo hatz lodia
<b>errai</b>	tripa, barnea
<b>errain</b>	semearen emaztea
<b>erregutu</b>	mesedeka eskatu

Hitza	Esanahia
<b>erremina</b>	erredura
<b>errepesa</b>	
<b>errezel</b>	gortina
<b>erruz</b>	gogoz, asko, ugari
<b>esatari</b>	lokutorea
<b>esku artean erabili</b>	lantzen ari dena
<b>estira</b>	tortura, tormentua, suplizioa
<b>huri zirin</b>	zirimiria, lanbroa
<b>ezkaratz</b>	ataria, sarrera
<b>ferekatu</b>	laztandu, leunki ukitu
<b>forja</b>	burdinazko egitura
<b>gajo</b>	gaixoa, koitadua
<b>galga</b>	balazta
<b>gatibatu</b>	harrapatua, interesatua, preso
<b>gomutatu</b>	burura etorri
<b>gotorleku</b>	fortea
<b>grina</b>	pasioa, irrika
<b><i>groggy</i></b>	jota, zurtuta, durduzatuta
<b>gurpil plater</b>	<i>tapacubosa</i>
<b>halla</b>	atondoa
<b>hanpatu</b>	puztua, arranditsua
<b>harlauza</b>	baldosa
<b>hatz</b>	atzamarra, eria
<b>helikoidal</b>	helize formakoa
<b>herra</b>	gorrotoa, ikusezina, hegigoa

Hitza	Esanahia
<b>hira</b>	kolera, haserrealdi itsua
<b>hitzordu</b>	zita
<b>hur</b>	hurbil, gertu
<b>huts</b>	akatsa, errakuntza
<b>ile urdindu</b>	zuri jarria ( <i>canoso</i> )
<b>ilea laztu</b>	zirrara eragin, inpresionatu
<b>imintzio</b>	keinua
<b>inposta</b>	zutabea eta arkua lotzeko gunea
<b>inprenta letra</b>	makinez idatzia
<b>iradoki</b>	sujeritu, erdi esan
<b>iragarle</b>	anuntzioa
<b>iratzarri</b>	esnatu, itzartu
<b>irendu</b>	zikiratu, barrabilak kendu
<b>irmo</b>	tinko, gogor
<b>irri</b>	adeitasunezko barretxo
<b>iseka</b>	burlaka
<b>itaun</b>	galdera
<b>itzulinguruka ibili</b>	errebuiltaka, harira joan gabe
<b>jagon</b>	zaindu
<b>janba</b>	ate-leihoen zurezko ertza
<b>jaramon egin</b>	kasu egin, kontuan hartu
<b>jardule</b>	agentea, eragilea
<b>jazoera</b>	gertakaria
<b>jeloskortasun</b>	zelo, mesfidantza
<b>jipoi</b>	astinaldia, paliza

Hitza	Esanahia
<b>jorratu</b>	landu, elaboratu
<b>kaiera</b>	koaderno
<b>kakaztu</b>	hondatu, kaka artera bota
<b>kaoba</b>	zur beltza, preziatua
<b>karel</b>	itsasontzien goiko ertza
<b>kari</b>	kausa, motiboa
<b>kartazal</b>	gutun-azala ( <i>sobre</i> )
<b>kemenik gabe</b>	adorerik gabe, indarge
<b>kirten</b>	heldulekua ( <i>manilla</i> )
<b>kizkur</b>	kiribildua
<b>klaska</b>	aho zaratatxoa
<b>kokots</b>	bidarra, aurpegi beheko irtengun
<b>kopeta</b>	bekokia
<b>kriptiko</b>	enigmatikoa, ulertzeko zaila
<b>kuiatxo</b>	kalabazina
<b>laga</b>	utzi
<b>laido</b>	ofentsa ( <i>ultraje</i> )
<b>lakar</b>	latza
<b>lanbrotu</b>	lausotu, difuminatu
<b>larderia</b>	mehatxua, intimidazioa
<b>lazgarri</b>	ikaragarria, itzela
<b>likatsu</b>	itsaskorra, lirdingatsua
<b>lipar</b>	unea, eretia, momentua
<b>lizunkeria</b>	indezentzia, gauza lohia
<b>lokarrarazi</b>	lo eragin, blokeatu

Hitza

Esanahia

<b>loki</b>	buruaren belarri aurreko gunea
<b>lotu</b>	geratu, hitzordua adostu
<b>mailatu</b>	kolpe marka ( <i>bollo</i> )
<b>mailatune</b>	ubeldura, kontusioa
<b>malapartatu</b>	madarikatua, gaitzesgarria
<b>matxura</b>	aberia
<b>mesfidantza</b>	errezeloa, susmo txarra
<b>mintzatu</b>	hitz egin, berba egin
<b>mirespen</b>	lilura, admirazioa
<b>miretsi</b>	harridura sentitu ( <i>admirar</i> )
<b>modulatu</b>	tonu egokikoa
<b>motots</b>	ile multzo bildua ( <i>moño</i> )
<b>mugurdi</b>	masusta gorria ( <i>frambuesa</i> )
<b>nabarra</b>	kolore askokoa ( <i>multicolor</i> )
<b>nasa</b>	kaia, andena
<b>nolanahi den</b>	edozeelan ere
<b>norberaren nortasun</b>	norberaren izatea, pertsona
<b>oinaze</b>	mina
<b>oker ibili</b>	erratuta ibili
<b>oldarkortasun</b>	erasokorra izatea
<b>oldartu</b>	erasoan bezala zuzendu
<b>omenezko</b>	gorazarrezkoa, oroitzapenezkoa
<b>onetsi</b>	onartu, ontzat hartu
<b>oratu</b>	heldu
<b>orban</b>	mantxa

Hitza

Esanahia

<b>orbel</b>	hosto lehorren multzoa
<b>orfidal</b>	botika, antsietatea baretzeko
<b>orin</b>	orezta, peka
<b>orla</b>	ertz dekoratiboa
<b>ortozik</b>	oinutsik, oinetako barik
<b>ostendu</b>	ezkutatu
<b>otu</b>	bururatu, okurritu
<b>pairatu</b>	jasan, sufritu
<b>paramentu</b>	horma baten azala, ornamentua
<b>paranoidismo</b>	trastorno delirantea
<b>perrail</b>	baldea, uhoitza
<b>plantak egin</b>	itxurak egin, faltsukeriatan
<b>popatik hartzera</b>	kaka artera, izorratzera
<b>pozño</b>	poztasuntxo
<b>premia</b>	urgentzia
<b>purrustada</b>	protesta, mespretxuzko keinua
<b>sama</b>	lepoa, iduna
<b>samin</b>	tristeia, atsekabezkoa
<b>sapa</b>	sargoria, bero itogarria
<b>sarkor</b>	barnera sartzen dena
<b>segail</b>	argala eta erakargarria, lerdena
<b>sen</b>	instintua, berezko zentzua
<b>sigi-saga</b>	zeharka-meharka, zig-zag eginez
<b>suminaldi</b>	amorrualdia
<b>supituan</b>	bat-batean



Hitza	Esanahia
<b>susmo</b>	errezeloa, aierua
<b>sutan jarri</b>	amorrutan jarri, sumindu
<b>sutsu</b>	irmo, gogoz
<b>tapiz</b>	tapizeria, moketa
<b>tentuz</b>	arretaz, kontuz
<b>terapia</b>	tratamendua sendatzeko
<b>tupustean</b>	ezustean, ustekabean
<b>turrusta</b>	txorrotada, ur parrasta
<b>txera</b>	afektibitatea
<b>txilioa</b>	garrasia
<b>txundituta</b>	harrituta, mira eginda
<b>ubeldura</b>	moratoia, beltzunea
<b>ukabil</b>	eskua itxia
<b>ukatu</b>	ezeztatu
<b>urdanga</b>	emagaldua, puta
<b>ustezko</b>	izan litekeena, presuntoa
<b>uxatu</b>	aienatu, urrunarazi
<b>uzkur</b>	lotsati
<b><i>we shall overcome</i></b>	protesta kantu baten titulua
<b>xafra</b>	plantxa, txapa
<b>xingola</b>	zinta
<b>xukadera</b>	eskuzapia, toalla
<b>zafraldi</b>	jipoia, astindua ( <i>paliza</i> )
<b>zantzu</b>	seinalea, aztarna
<b>zikiratu</b>	irendu, sexu organoak kendu

Hitza

Esanahia

<b>zimiko</b>	atximurra, txatxamarka
<b>zipriztin</b>	txipliztada
<b>zirimolatsu</b>	zurrunbilotsua, nahasia
<b>zola</b>	zorua, behea
<b>zoli</b>	ozena, indartsua
<b>zotin</b>	negar-hipaka, espasmoka
<b>zupatu</b>	xurgatu, zurrupatu
<b>zuritu</b>	azal kendu
<b>zurrut</b>	tragoskada, hurrupa